

Gizajo baten

EGUNKARIA

ERAISTE BOLA



ALBERDANIA

Gizajo baten


EGUNKARIA

ERAISTE BOLA



ALBERDANIA

Jeff
Kinney



JEFF KINNEY-REN BESTE LIBURUAK

Gizajo baten egunkaria (Greg Heffley-ren egunerokoa)

Gizajo baten egunkaria: Rodrick-en legea

Gizajo baten egunkaria: Hauxe besterik ez nuen behar

Gizajo baten egunkaria: Egun zakurrak

Gizajo baten egunkaria: Egia gordina

Gizajo baten egunkaria: Etxean itxita

Gizajo baten egunkaria: Bikotean hiru

Gizajo baten egunkaria: Suerte txarra

Gizajo baten egunkaria: Txango zoroa

Gizajo baten egunkaria: Eskola zaharra


Gizajo baten egunkaria: Dena ala ezer ez

Gizajo baten egunkaria: lhesaldia

Gizajo baten egunkaria: Izotz urtzaldia

ITZULTZAILEA:

Miren Arratibel



Gizajo baten

EGUNKARIA

14

ERAISTE BOLA

Jeff Kinney



MARTXOA

Igandea


Irakurri dut antzina beren ondasun guztiekin
ehorzten zituztela errege eta faraoiak. Dirudienez,
aspaldiko garai haietan uste zuten zure TRASTE
guztiak eraman ahal zenituela beste bizitzara.




Zulo batean NIRE ondasunekin ehorzten banaute,
gerora damutuko zaidala uste dut.



Ama esan eta esan aritu zait udaberriko txukunketa egin behar nuela, BEHAR ez ditudan gauzak botatzeko. Eta ez zirudien hain ideia txarra, konturatu naizen arte ZENBAT traste dauzkadan




Goiz osoa pasatu dut armairuan miaka, eta ez da sinestekoa zenbat gauza nituen barruan. Eta ez ONGI antolatuta eta horrela. Gauzak armairu barrura bota eta bota aritu naiz etxe honetara aldatu ginenetik.



Armairuan aztarrika ibiltzea HAURTZARORA
itzultzea bezala izan da. Eta, zenbat eta barrurago
egin, orduan eta atzerago eraman nau DENBORAN.

Armairuan aurrena aurkitu ditudan trasteak iaz sartutakoak ziren: etxeko lanak, komikiak eta horrelako beste gauza asko. Baina haiek paretik kendutakoan, AHAZTUTA nituen gauzak agertzen hasi dira.

Halaxe topatu dut, hamar urte bete nituehian oparitu zidaten kohete bat, eta orain urte batzuk Halloweenen jantzi nuen mozorro bat. Eta beste gauza asko eta asko, baneuzkanik ere ez nekienak.




Apur bat SAKONAGO arakatzuz, duela hainbat URTE galdutako gauza bat aurkitu dut: album bat, hirugarren mailan egindako eranskailu bilduma batena.



Erabat OBSESIONATUTA ibili nintzen ni eranskailuekin, eta bereziki igurtzi-eta-usaindu motakoekin. Usain GOZO guztiak lortu nituen, txiklearena, gozokiarena eta horrelakoak, baina baita usain HIGUINGARRI guztiak ere.


Eta nire kaleko umeren batek jakin nahi zuenean zer usain zuen jirafa gorotzak edo haragi pastel ustelak, NIREGANA jotzen zuen.




Egun hauetako batean, nire AUTOBIOGRAFIA idatziko dut, eta igurtzi-eta-usaindu eranskailuak erabiliko ditut nire bizitzako hainbat une gogoangarri deskribatzeko.




Jarraitu dut armairua arakatzen, eta HAUR
ESKOLAKO gauzak topatu ditut han; adibidez,
kartoi mehe batean nire eskuaren ingerada txukun
marraztuz egindako arrain bat.




OSO gustukoak nituen eskulanak orduan. Eta
norbait inoiz saiatzeko bazen niri horregatik burla
egiten, purpurinaz betetzen nion aurpegia.



Armairuan neukan beste proiektu bat zen haur eskolan amarentzat egindako opari bat, azkenean eman ez niona. Paperezko lore bat zen, zotz batean itsatsia, nire aurpegiaren argazkia zuena erdian.




Eskulan hura egin nuenean, lurrez beteriko loreontzi batean sartu nuen. Baina egun hartan eskolatik etxera iristean, estropezu egin nuen atariko eskaileran, eta horregatik ez nion amari eman.



IZUGARRI poztu naiz armairuaren hondoraino
iritsi naizenean, baina, egia esan, ETSIPEN pixka
bat ere hartu dut.

Gazteagotan, liburu bat irakurri nuen, beren
armairuan barrena, MUNDU zeharo diferente
batera bidaia zitezkeen haur batzuei buruzkoa,
eta beti pentsatu izan dut egundokoa izango zela
NIRE armairuan hori egin ahal izatea.

Baina, tira, beste aldean norbait biziz gero, ez
dut uste nirekin oso pozik egongo zenik, hainbeste
urtean ZABORRA bota eta bota ibilita, ibili
naizen bezala.



Amari esan diodanean armairua husten ari nintzela,
dena hiru multzotan antolatzeke esan dit: multzo
bat gordetzeke gauzena; beste bat, emateko
gauzena; eta hirugarrena, botatzeko gauzena.
Baina orduan pentsatu dut banuela traste haiekin
DIRU pixka bat irabaztea ere. Eta erabaki dut
MERKATU TXIKIA antolatzea lorategian.

Amari ideia APARTA iruditzen zaio. Eta aldizkari
bat eman dit, merkatu bat BEHAR BEZALA
antolatzeke jarraibide guztiak zekartzana.




Aldizkariko ideia guztiak oso inozo eta zaharkituak ziren, ordea. Atal batean esplikatzen zuen nola egin kartel bat jendea zure merkatu txikira erakartzeko, eta adibide EZIN aspergarriagoak ziren guztiak.



Ederki nekien nik zerbait DEIGARRIAGOA egin beharko nuela jendea nire azokara erakartzeko. Eta amu ezin hobea izango den kartel eder bat prestatu dut.

100 €-KO BILLETEA
AURKITU DUGU ESPALOIAN
MESEDEZ JABEA
SURREY KALEKO 12.ERA
ETOR DADILA

Eta kartelaren kopia batzuk egin ditut, auzoan jartzeko. Baina ate nagusitik kalera nindoala geldiarazi egin nau amak.




Aldizkarian agertzen zirenen tankerako beste kartel batzuk eginarazi dizkit amak, eta, amaitu dudanean, gure kaleko telefono posteetan jarri ditut batzuk. Gero, nire gelako traste guztiak jaitsi, eta plastikozko mahaietan antolatzen hasi naiz.

Mahai bakoitzean, kategoriatuak: "arropa" eta "liburuak" esaterako. Baina gauza batzuk sailkatzea ez zen erraza, eta irudimenari eragin behar izan diot.

Gauza mordo bat nuen aitona-amonek eta senide zaharragoek aspaldi oparitu, eta nik UKITU ere egin ez nituenak, eta mahai batean jarri ditut denak batera.



Zorion txartelak ere baneuzkan, pila bat, oraindik oso egoera onean. Eta zuritzaile pixka batekin nire izena estali, eta beren mahaian txukun-txukun jarri ditut.



Jostailu hautsiak beste mahai batean jarri ditut, esperantza banuelako IRAKURTZEN ez dakiten ume txiki batzuk ere etorriko zirela azokara.

